

ARGIZTAPENA

Argi motak:


Jatorriaren arabera:

- Naturala: bere oinarriak eguzkia duena
- Artifiziala: gizakiak sortutakoa (kandelak, fokoak...)

Kokapenaren arabera:

- Argi nagusia: pertsonaiarengan edo objektuarengan eragin handiena duena, bere parean egoten da
- Betetze argia: argi nagusiaren konplementua, argi nagusiak ilun uzten dituen gunek "altxatu" egiten ditu
- Kontraargia: Pertsonaia edo objektuaren atzkaldean jartzen dugu eta figura hondotik bereiztea du helburu. Sakontasuna ematen dio planoari
- Hondoaren argia: hondoak argitzen duen argia

Argiztapen oinarritzko eskema:



Intentsitatearen arabera:

- Argi zuzena edo gogorra: Pertsonaiarengan edo objektuan eragin handiena duena da, eta bere parean egoten da. Zerbait azpimarratzeko erabiltzen da, ikuslearen begirada gidatzen du. Kontraste handiak sortzen ditu argia eta itzalaren artean.
- Argi barreiatua edo biguna: Objektu edota pertsonaien formak desitxuratu egiten ditu, ingeradak (siluetak) ez daude definituta eta ez dago kontraste handirik argiaren eta itzalaren artean



Norabidearen arabera:

- Aurretiko argiztapena: objektuak eta pertsonaiak osotasunean argiztatzen ditu, ez du itzalik sortzen eta ingerada zehazten du



- Albotiko argiztapena: Objektuak edo pertsonaiak alde batetik argiztatzen ditu, bolumena sortzeko eta izaera adierazteko



- Argi kontra: objektua edo pertsonaiaren atzealdetik etortzen da argia. Ingerada ilunak sortzen ditu



Altueraren arabera:

- Argiztapen kontrapikatua: Objektu edo pertsonaiaren azpitik kokatutako argi iturri batetik argiztatuta. Hazpegiak (rasgoak) azpimarratzen ditu eta efektu dramatikoak, adierazkorrak sortzea du helburu.



- Argiztapen zenit-argia: objektu edo pertsonaia goitik datorren argi iturri batetik argiztatzen du. Hazpegiak azpimarratzen ditu. Kontrapikatua baino atseginagoa da.

